Sin embargo, esta reforma realiza una segunda gran modificación en los tipos de contratación: la reformulación del contrato fijo-discontinuo, y lo hace para ampliar los casos en los que esta contratación puede ser aplicada. Con este cambio, el legislador trata de compensar a empleadores/as la pérdida de su modalidad temporal favorita (obra o servicio) con una nueva formulación de una modalidad contractual que se supone indefinida, pero que, aunque conlleva algunas ventajas, adolece de importantes carencias de cara a garantizar la estabilidad de los asalariados/as. Del mismo modo, ofrece a la empresa ventajas que en algunos sentidos le beneficia más incluso que la propia contratación temporal, favoreciéndole en al menos dos aspectos.

En cuanto a las ventajas para empleadores/as, la primera es la capacidad que esta modalidad contractual otorga a la empresa para decidir unilateralmente los periodos de actividad del trabajador/a de acuerdo a sus necesidades fluctuantes de fuerza de trabajo o a sus decisiones de gestión laboral. Esto es así debido a que la ley no obliga a la empresa a establecer un periodo cierto y concreto de actividad. Según el nuevo artículo 16.2 ET, el contrato «deberá reflejar los elementos esenciales de la actividad laboral, entre otros, la duración del periodo de actividad, la jornada y su distribución horaria, si bien estos últimos podrán figurar con carácter estimado, sin perjuicio de su concreción en el momento del llamamiento». Tanto pronunciamientos previos del Tribunal Supremo<sup>14</sup> como diversos autores han señalado que estas cuestiones no deben depender de la mera voluntad empre-

---

<sup>14</sup> Sentencia del Tribunal Supremo del 30 de julio de 2020 (RCUD 728/2020).

sarial (Gordo 2022; Goerlich 2022; García Ortega 2022; López Balaguer y Ramos Morales 2022), sino de criterios objetivos, aunque la nueva redacción de la norma no ofrece una definición precisa de los mismos.

De esta manera, el empleador/a gana una gran flexibilidad a la hora de gestionar la fuerza de trabajo, que tiene disponible con una sola llamada; y el trabajador/a pierde la estabilidad en el puesto de trabajo, más incluso de la que perdía con la contratación temporal, ya que la ley ni siquiera obliga a la empresa a definir de forma concreta en el contrato el periodo de actividad que finalmente realice el trabajador/a, quedando este/a a expensas de la decisión del empleador/a.

Además, las modificaciones de la legislación laboral han permitido que la definición de las causas que justifican la contratación fijo-discontinua sean más laxas y amplias, lo que impide el deseable control tuitivo por parte de inspección de trabajo en la aplicación de dicha modalidad contractual.

El segundo aspecto en el que la empresa se ve favorecida deviene precisamente de la situación de dependencia en la que queda el trabajador/a bajo la modalidad del fijo-discontinuo. Como ya hemos señalado, la legislación no obliga a establecer un periodo cierto de actividad laboral definido contractualmente, y ni siquiera garantiza la obligación por parte del empleador/a a llamar a la persona trabajadora para el inicio de la actividad laboral. De este modo, el trabajador/a queda a merced de la voluntad de la parte empleadora de cara a poder trabajar, lo cual supone una posición de clara ventaja por parte del empleador/a en la relación de poder que mantiene con sus empleados/as. Así las cosas, la empresa puede valerse de la amenaza velada, explícita o no, de no volver a llamar a un trabajador/a, o de acortar el periodo de actividad, para extraer de este/a una subordinación extra, más allá de la pactada en el contrato de trabajo y de la regulada por la legislación laboral vigente. Es una nueva oportunidad para la llamada «subordinación ultracontractual» (Salazar, 2017: 306), siendo el contrato fijo-discontinuo aún más propicio para el empleador/a que la contratación temporal a la hora de ejercer esta forma de relación abusiva.

Entre las ventajas para trabajadores/as, destaca la acumulación de antigüedad, así como la indemnización correspondiente al del contrato indefinido, pasando de 12 días por año del contrato temporal a 20 o 33 días por año, en función de si es despido procedente o improcedente. También adquiere otras ventajas como el acceso a formación interna.

Otras modificaciones introducidas incluyen medidas ventajosas para estos/as, como el encarecimiento de los contratos de corta duración, la simplificación de los contratos formativos y la mejora de las condiciones para empleados/as eventuales en el sector público. Además, se regulan los Expedientes de Regulación Temporal de Empleo, que supone una flexibilización de la gestión laboral en periodos de crisis para evitar cierres y despidos a costa de trasladar parte del riesgo económico del Capital al Trabajo.

Pese a todo, al margen de las modificaciones realizadas por el legislador, cabe destacar la ausencia de estas en determinados ámbitos claves, como son algunos de los aspectos más lesivos para la clase trabajadora introducidos en la cuarta etapa de reformas, aquellas que se dieron bajo el amparo de la crisis. Nos estamos refiriendo al abaratamiento y facilitación del despido en el caso de contratos indefinidos, que ha socavado la protección frente al despido,<sup>15</sup> reconocida y supuestamente garantizada por documentos como la Carta de los Derechos Fundamentales de la UE (artículo 30) (de la Fuente 2014). De este modo, el contrato indefinido no supone hoy en día una garantía de estabilidad, aunque en realidad esta garantía ya estaba debilitada antes de las reformas de 2010 y 2012.

Sobre todo, quedan expuestos al despido arbitrario aquellos asalariados/as que no han acumulado una gran antigüedad en la empresa y que, por mucho que cuenten con contrato indefinido, pueden ser despedidos libremente, con un coste de indemnización reducido. Peor es el caso de los nuevos contratados indefinidos, quienes pueden ser despedidos de forma libre y gratuita durante los primeros meses o año, lo que dure el periodo de prueba.

En definitiva, esta quinta etapa de reformas laborales ha sido la única que ha cambiado la tendencia neoliberal de todas las anteriores, siendo la primera que implica mejoras reseñables para el Trabajo. Sin embargo, la magnitud de las mismas es bastante más limitada de lo aparente, ya que solo elimina la precariedad en apariencia: la tasa de temporalidad baja, pero la estabilidad de la contratación indefinida no se restaura, e incluso se degrada a través de la consagración de la modalidad fijo-discontinuo.

### 3. CONCLUSIONES

A modo de conclusiones, lo primero que deberíamos destacar es que, tal y como hemos visto a lo largo del artículo, todas las medidas y modificaciones analizadas han tenido un impacto opuesto en cada una de las dos partes que forman la relación laboral: lo que beneficiaba a trabajadores/as perjudicaba a la empresa, y viceversa. Cuando se ha pretendido impulsar el beneficio empresarial ha sido a costa de derechos, condiciones y garantías de los asalariados/as, incluso cuando se hacían bonificaciones fiscales a las empresas, ya que se daba reducción de su sueldo indirecto (a lo que luego se han sumado recortes y políticas de austeridad en servicios públicos). Del mismo modo, las pocas veces que han tratado de mejorar las condiciones del Trabajo ha sido a costa de la rentabilidad del Capital: sea aumentando el coste de indemni-

---

<sup>15</sup> «La consagración del principio de causalidad en el despido tiene su origen en la ley de contrato de trabajo de 1931 y se ha mantenido formalmente hasta nuestros días. Sin embargo, ya desde su génesis, las consecuencias del despido sin causa se han asociado al pago de una indemnización al trabajador, siendo excepcional la readmisión del mismo en la empresa, sólo presente en los despidos nulos. Aún dentro de estas estructuras jurídicas, la evolución normativa del despido en España ha tenido dos variables de transformación. De un lado, la descausalización del despido, que lo convierte, sobre todo en el plano individual, en un despido libre con una indemnización tasada. De otro lado, la reducción considerable de la indemnización del despido improcedente y la búsqueda de certeza empresarial en la previsibilidad del coste extintivo» (Lahera y García, 2007: 50).

zación por despido, aumentando el coste de la fuerza de trabajo, o la mejora de ciertas condiciones laborales que menguaba la capacidad de gestión laboral de las empresas.

A lo largo del artículo también hemos visto cómo los procesos de reformas se dan en una constante disputa entre patronal y sindicatos, o lo que es lo mismo, entre Capital y Trabajo. Además, todo el proceso ha estado guiado por un doble sentido teleológico contradictorio en sí mismo: por un lado, adaptar el mercado laboral a las necesidades del modelo neoliberal; por otro lado, reducir el impacto que dicha adaptación ha tenido en los derechos, garantías y condiciones laborales de trabajadores/as. El primer objetivo ha tenido mucho más peso, ya que la mayoría de las modificaciones iban dirigidas a este; solo en la quinta etapa ha cambiado esa lógica predominante de orientación neoliberal, aunque más de forma aparente que real y efectiva.

Como balance general de todas las reformas, desde que se instituyó el ET podemos observar una degradación para el mundo del Trabajo y una mejora para el Capital. Dos son las grandes modificaciones que destacaremos: primero, la creación de formas contractuales inestables, como es la temporal y la parcial (y posteriormente las modificaciones del fijo-discontinuo), que han segmentado el mercado laboral introduciendo una suerte de trabajadores/as de segunda categoría (el segundo segmento) ya desde las reformas de los años 80, caracterizados por ser asalariados/as de bajo coste, con los que la empresa no adquiere ningún compromiso y que utiliza a modo de usar y tirar.

En segundo lugar, cabe destacar el socavamiento de la estabilidad del contrato indefinido, cuyas modificaciones continuas en forma de ampliación de las facilidades para el despido, así como el abaratamiento del coste de este, han minado la protección contra el despido libre y arbitrario. Esto supone debilitar uno de los fundamentos del Derecho del Trabajo y, con ello, alterar la relación leonina entre empleador/a y trabajador/a a favor del primero/a, quien tiene cada vez más capacidad de decisión unilateral sobre la continuidad del segundo/a, lo que puede utilizar arbitrariamente para imponerse sobre éste en una práctica que anteriormente hemos definido como «subordinación ultra-contractual».

## BIBLIOGRAFÍA

ARPE (2023). *El Estado de la Pobreza. Seguimiento de los indicadores de la Agenda UE 2030. 2015-2022*. EAPN España.

Baylos, Antonio (2003). «Las relaciones laborales en España 1978-2003», en *Desde la Constitución hasta nuestros días*. Madrid: Fundación Sindical de Estudios.

Boltanski, Luc y Chiapello, Éve (2002). *El nuevo espíritu del capitalismo*. Madrid: Akal.

Bourdieu, Pierre (1999). *Contrafuegos*. Madrid: Anagrama.

- Banco de España (2017). *Informe sobre la crisis financiera y bancaria en España, 2008-2014*. Madrid.
- Cabeza Pereiro, Jaime (2022). «La devaluación de las garantías del empleo: el reducido control de la decisión unilateral del empresario». *Cuadernos de Relaciones Laborales*, 40(1): 57-76. <https://doi.org/10.5209/crla.77639>
- Calvo Gallego, Francisco Javier y Rodríguez-Piñero Royo, Miguel (2014). «Las reformas laborales como instrumento de política económica y su impacto sobre el dialogo social en España. A propósito del reciente informe de la OIT “España: crecimiento con empleo”». *Relaciones Laborales y Derecho del Empleo* 2 (4): 1-54.
- Cruz Villalón, Jesús (2012). «Hacia una nueva concepción de la legislación laboral». *Temas Laborales* 115: 13-53.
- De la Fuente, Mikel (2014). «Art. 30: La protección en caso de despido injustificado, insuficiente para contrarrestar la tendencia flexibilizadora y de subordinación de lo social». *La Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea en el ordenamiento jurídico español*. Pamplona: Thomson Reuters Aranzadi
- De la Fuente, Mikel (2017). «SMI: la nueva estafa del PP-PSOE». *Tribuna Viento Sur*. Disponible en <http://www.vientosur.info/spip.php?article12125>
- De la Fuente, Mikel. Zubiri, Jon Bernat (2022). «La reforma laboral de 2021 en España, cambio de tendencia en la regulación de la contratación temporal». *Revista Crítica de Relaciones de Trabajo. Laborum* 3: 199-223.
- Doeringer, Peter. Piore, Michel (1985). «Mercados internos de trabajo y análisis laboral». Madrid: Ministerio de Empleo y Seguridad Social.
- Durkheim, E. (1982). *La división del trabajo social*. Madrid: Akal.
- García Murcia, Joaquín (2004). «Contratas y subcontratas». *Revista del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales: Revista del Ministerio de Trabajo e Inmigración*. 48: 13-38.
- García Ortega, Joaquín. (2022). *El contrato fijo-discontinuo tras el RDL 32/2021, de 28 de diciembre, de reforma laboral*. Asociación Española de Derecho del Trabajo y de la Seguridad Social. <https://www.aedtss.com/wp-content/uploads/2022/01/ref-fijos-disc-2.pdf>
- Goerlich Peset, José María (2022). «Contrato fijo-discontinuo: ampliación de supuestos y mejora de sus garantías». *Labos* 3, Número extraordinario «La reforma laboral de 2021»: 58-72.

- González Ortega, Santiago (1993). «La protección por desempleo». *Relaciones Laborales* 2: 324-363.
- Gordo González, Luis (2022). «El contrato fijo-discontinuo: nuevo pilar de la contratación laboral estable». *Estudios Latinos* 13 (1): 39-50. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=8498145>
- Gutiérrez Pérez, Miguel (2014). «Examen de la reforma laboral de 2012 a la luz del Convenio 158 OIT: el reciente informe de la OIT». *Revista General de Derecho del Trabajo y de la Seguridad Social* 39: 291-304.
- Instituto de Estudios Socialistas (2024). «Cuantificación de las clases sociales en Euskal Herria, una aproximación». Estudios estratégicos nº1. Disponible en: <https://isi.eus/es/artxibo/1/>
- Lahera Forteza, Jesús. García Quiñones, Juan Carlos (2008). «La transformación de la contratación laboral, el trabajo a tiempo parcial y el despido». *Cuadernos de Relaciones Laborales* 25(2), 39-54. <https://revistas.ucm.es/index.php/CRLA/article/view/CRLA0707220039A>
- Laparra, Miguel (2007). *La construcción del empleo precario*. Madrid: Fundación FOESSA.
- López Balaguer, Mercedes. Ramos Moragues, Francisco (2022). «La reforma del contrato fijo-discontinuo: art. 16 ET». En *La Contratación Laboral en la reforma de 2021. Análisis del RDL 32/2021, de 28 de diciembre*. Tirant lo Blanch, Valencia.
- Marx, Karl (2014). *El Capital. Crítica de la Economía Política. Tomo 1*. México D.F.: Fondo de Cultura Económica.
- Monereo, José Luis (2011). *Manual de Política y Derecho del Empleo*. Madrid: Tecnos.
- Monereo, José Luis (2014). «¿Qué sentido jurídico-político tiene la garantía del derecho “al trabajo” en la “sociedad del riesgo”?». *Temas Laborales* 126: 47-90.
- Montoya Melgar, Alfredo (2014). «El espíritu de las Leyes laborales». *Nueva Revista Española de Derecho del Trabajo* 164: 11-17.
- Piketty, Thomas (2014). *El Capital en el S. XXI*. Madrid: Fondo de Cultura Económica.
- Pinto Tortosa, Antonio Jesús (2023). *Una breve historia social del trabajo*. Madrid: Ediciones Complutense.
- Rose, Jonathan (2001). *The intellectual life of the British working classes*. New Haven: Yale University Press.

Salazar Martínez de Iturrate, Peio (2019). «Relaciones laborales neoliberales: la “subordinación ultra-contractual”». *Sociología del Trabajo* 95: 89-103. <https://doi.org/10.5209/stra.66444>.

Salazar Martínez de Iturrate, Peio (2017). «La transformación de la relación laboral durante la etapa neoliberal: el neo-proletariado y la subordinación ultra-contractual». (Tesis doctoral. Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea). <https://addi.ehu.es/handle/10810/26876>

Simmel, George (1981). *Sociologie et épistémologie*. Paris: PUF.

Weber, Max. (1981). *El político y el científico*. Madrid: Alianza.

RECENSIÓN · LIBURU IRUZKINA

**Leire Escajedo San Epifanio, Julen Zabalo Bilbao  
eta Igor Filibi Lopez (ed.).  
*Demokrazian sakontzea eta parte hartzea,  
hainbat eskalatan (2023)*  
Leioa: UPV/EHU**

Jon Fernández Iriondo<sup>1</sup>

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

Demokrazia ez dago bere garairik onenean. Munduaren luze-zabalean autoritarismo-ranzko joera dagoen honetan, demokraziaren etorkizuna ezbaian dago<sup>2</sup>. Testuingurua ikusita, inoiz baino beharrezkoagoa omen da pentsamendu kritikoa sustatzea «herritartasun» eta «demokrazia» kontzeptuen inguruan. Kontzientzia demokratikodun herritar kritikoen trebakuntzan laguntzeko asmoz hain zuzen, eskuliburu hau plazaratu dute UPV/EHUko hogeitabi bat irakasle eta ikertzailek, gonbidatutako zenbait aditurekin batera. Julen Zabalo, Leire Escajedo eta Igor Filibi editoreek kapitulu editorialean diotenez, liburuaren egile guztiek ikuspegi normatibo bera dute, Parte Hartuz ikertaldearen printzipioetako batekin bat datorrena: sakontze demokratikoa posible eta beharrezkoa delako konbentzimendua. XXI. mendearen hasieran demokraziaren gaineko produkzio akademikoa kuantitatiboki izugarria dela kontuan hartuta, eskuliburu honen berezitasuna ez litzateke euskarazko ikasmateriala izatea bakarrik, baita Euskal Herriko ezagutza eta esperientziak barnebiltzea ere. Gure gizartea «aspalditik benetako laborategi sozial eta politikoa» izanda zenbait arrazoi direla medio (kokapen geografikoa, motor ekonomikoa izatea, nazio-identitatearen auzia, etab.), euskal begirada bat aberasgarria da oso, demokraziak egun hartzen dituen formez eta eskala berriez hausnartzeko (15. orrian). Kapitulu bakoitzak demokraziaren, herritartasunaren edota subiranotasunaren ertz bat jorratzen du, tokian tokikotik nazioartekora bitarteko eskaletara proiektatuta egonda lanok.

Egituraren aldetik, kapitulu editorialaren eta Argimiro Rojoren ekarpenaz gain, eskuliburuak bost atal ditu, bakoitzak lau kapitulu barne hartzen dituelarik, bosgarren atalak izan

---

<sup>1</sup> Argitalpen honen egilea UPV/EHUn ikertzaileak prestatzeko kontratazio deialdiaren onuraduna da (PIF 2022). Gainera, lan honek Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren laguntza ere jaso du (IT-1438-22).

<sup>2</sup> Sakontzeko: Applebaum 2020.

ezik: I. ataleko lanek neoliberalismoak demokrazian duen eragina aztertzen dute ikuspuntu ezberdinetatik; II.ak parte hartzeko era berriak ditu aztergai Mendebaldeko demokraziaren hainbat eskalatan; III. ak Euskal Herriko —edo EAeko— zenbait esperientzia jorratzen ditu parte hartzeko estrategiei dagokienez, eta IV.ak Mendebaldeko demokraziak aztertzeko epistemologia eta metodologiei heltzen die. V. atalean, Iñaki Zaldua Callejak amaiera ematen dio ikasmaterial honi funtsezko kontzeptuak definitzen dituen glosategi-kapitulu baten bitartez. Jarraian, kapitulu bakoitzaren edukia laburbilduko dut, kapituluak eskalaka multzokatuz.

Lehenik eta behin, bi dira *tokiko eskala* jorratzen duten kapituluak. Alde batetik, «Hirien suntsipen sortzailea eta demokratizaziorako aukera berriak aztertzen» izeneko kapitulua dugu. Bertan, Iago Lekuek eta Imanol Telleriak hirietako estatu lokalen botere arautzailearen dinamikak eta tokiko agentzien rol berria jorratzen dituzte, berreskalamendu neoliberalaren testuinguruan. Hiri Teoria Kritikoan eta «suntsipen sortzaile»aren kontzeptu schumpeteriarrean oinarrituta, azaltzen dute zer-nolako formak hartzen dituen hirietan neoliberalismoaren lur hartzeak eta bere faseek: protoneoliberalismoak, murrizketen neoliberalismoak, eta hedapen-neoliberalismoak. Horren aurrean, hiriak demokratizatzeo aukerak handitzeko edo egikartzeko beharrezkoak dira kolibrazioa (hau da, «hainbat aktoreren arteko oreka lortzeko esku-hartze estrategikoa»), politika publikoen koproduzioa parte hartzeko mekanismo egonkorren bidez, eta gizarte-mugimendu urbanoak (hala nola, etxegabetzeen aurkako mugimenduak). Ekintza kolektiboa kontraneoliberalizatorantz bideratu beharra legoke.

Bestetik, Zesar Martínez, Izaro Gorostidi eta Andere Ormazabalak kapituluak «Parte hartze politikoa eta ekintza kolektiboa: herri-ekimenaren eta administrazio publikoaren arteko harremanak» du izenburu. Harreman horien zenbait elementu korapilatsu azaldu ostean (gizarte-mugimenduek eremu instituzionalaren aurrean izaten dituzten jokabide politikoen continuum-a, autonomia politiko eta ekonomikoa gordetzetik instituzioetan eragiteko eta ekiteko prestasuneraino; desbideratzaile kooptatzailearen arriskua, etab.), tokian tokiko bi esperientzia aztertzen dituzte: Gernikako Astra eta Santutxuko Karmela. Bi kasuok frogatzen dute «egitasmo herritarren eta administrazio publikoaren arteko dialogoak eta lankidetzak ahalbidetu egiten dute[la] interes orokorreko premia sozialak asebetetzeko espazio eta dinamika komunitarioak eraikitzea» (378. orrian). Halaber, frogatuta geratzen da unibertsitateak ekarpen nabarmena egin dezakeela ekintza kolektiboko espazioetan eta instituzioekiko harremanetan.

Bigarrenik, *euskal eskalari* —edo, kasu gehienetan, EAeko eskalari— dagokionez, Jon Azkunek, Eneko Ander Romerok eta Jule Goikoetxeak kapitulu interesgarria eskaintzen digute «Sindikalismoa eta demokratizazioa kapitalismo globalean: Euskal kasua» izenburupean. Ikuspegi Estrategiko Erlazionalean eta gobernamentalitate neoliberalaren ulerkeraren foucaultarrean oinarrituta, demokrazia «demokratizazio eta desdemokratizazio prozesuen interakzioaren emaitza»tzat jotzen dute. Interakzio horretan, sindikalismoa —kasu honetan, euskal gehiengo sindikala— aktore demokratizatzailetzat identifikatzen dute.

Alabaina, EAEn testuinguruan, demokraziaren pribatizazioaren<sup>3</sup> aurpegietako bat euskal gehiengo sindikalaren kanporaketa sistemikoa izango litzateke hain zuzen. Horren aurrean, gehiengo sindikalak konfrontazioaren alde egin izan du, baina aldi berean kontzertazioaren —alegia, lan harremanen esparru propioaren— beharra aldarrikatuz etengabe. 2009ko krisiaz geroztik, ELAk, LABek eta gehiengo sindikalaren parte diren gai nontzeko sindikatuen jarduera «estatismo komunitarista»tzat jotzen dute autoreok.

Nerea Zubillaga Herranek eta Noemi Bergantiños Francok, euren aldetik, gizarte-zerbitzuen erronkei buruz hausnartzen dute gizarte-langintza komunitarioaren eta parte hartzearen ikuspegitik, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren adibidea erabiltzen dute horretarako. Espainiako estatuan eredu mediterranearra dago indarrean, horren bereizgarria izanik familiaren papera ongizatea eta segurtasuna hornitzeko. Sistema horrek, esan gabe doa, desparekotasun sozialak erreproduzitzen ditu. Erronken artean, aipatzen dute gizarte-zerbitzuen kutsu indibidualista eta asistentzialista alboratzeko eta gizarte-langintzaren dimentsio kolektiboa eta egiturazkoa berreskuratzeako beharra. Sakontze komunitarioarako, ezinbestekoa omen da herritarrak partaide egitea: alegia, herritarrek premiei buruzko hausnarketan parte hartzea eta erabakiak hartzean presente egotea. EAEn kasuan, legeak komunitateari emandako aitortza gorabehera, datuek erakusten dute aitortza horrek ez duela behar adinako islarik izan errealitatean.

III. atalaren 2. kapituluan, berriz, euskal gazte aktibisten herritartasun-praktika formatiboak dituzte hizpide Ane Larrinagak, Mila Amurriok, Iker Iraolak eta Onintza Odrizolak. Hauteskundeetan gazteen abstentzio-maila oso altua izaten bada ere, horrek ez du esan nahi gazteak erabat apatikoak direnik politikoki; aitzitik, gazteek politikan parte hartzeko moduak aldatu egin dira. Gaur egun, modu horiek askotarikoagoak, zatituagoak eta noizbehinkakoagoak dira. Haien ekintza politikoa kausa jakin batzuetara bideratuta egon ohi da eta eguneroko bizitzak eskaintako aukerak —bizimoduak, elikadura eta birziklatze errutinak, interneteko jarduerak, etab.— baliatzen dituzte ekintza politikoa garatzeko. Oro har, kultura aktibistak lehen baino eredu indibidualizatuagoak ditu, neoliberalismoak sustatutako herritartasun-ereduaren ondorioz. Testuinguru horretan, ikertzaileok 18 eta 35 urte bitarteko 17 gazte ekintzaile elkarrizketatu dituzte EAEn eta NFEn. Aurkikuntzek berresten dute eguneroko mikropolitikak garrantzi handia duela euskal gazteen artean (zein hizkuntzatan komunikatu, nola eraiki pertsonen arteko harremanak, sexualitatea garatzeko moduak, etab.), ohiko «praktika liskartsu»ez gain —manifestaldiak, kontzentrazioak, etab.

Gazteen herritartasun-praktikez gain, etorkinen integrazio-pertzepzioa eta parte hartze soziopolitikoa ere aztertzen du eskuliburu honek. Izan ere, Arkaitz Fullaondok eta Gorka Morenok EAEn etorkinen —kasu honetan, nazionalitate espainiarra ez dutenen— egoera aztertzen dute metodologia kuantitatiboaz. Aurkikuntzak honela laburbil ditzakegu: i) etorkinek biztanleria osoaren maila berean parte hartzen dute; ii) atzerritar profil ez-

<sup>3</sup> Demokratizazioaren pribatizazioaren inguruan sakontzeko: Goikoetxea 2017.

berdinak daude parte hartze-motaren arabera; iii) parte hartzen duten etorkinek integratuago ikusten dute euren burua; iv) elkarteei dagokienez, etorkinek batez ere hezkuntza, kultura eta kirol-elkarteetan parte hartzen dute eta elkarte horietan parte hartzen dutenek integrazio-pertzepzio handiagoa dute, eta v) antolakunde sozial eta politikoei datzekiela, parte hartze-maila handiagoa da etorkinei laguntzen dieten antolakundeetan eta sindikatuetan.

Zehazki euskal testuingurua jorratzen ez badute ere (ez, behintzat, sakonki), *nazioaren* zenbait alderdi *maila abstraktuan* lantzen duten kapituluak ere badaude. Batetik, Ander Vizán Amorósek, Amalur Álvarezek eta Julen Zabalok «Erabakitzeko eskubidea: estatu berriak sortzeko bide demokratikoen bila» kapitulua idatzi dute. Bertan, autodeterminazioaren eta sezesioen historia eta teoriak birpasatu ostean, eskubide berri baten teorizazioari nahiz praktikari heltzen diote: erabakitzeko eskubideari, hain zuzen. Eskubide hori mende honetako hasieran teorizatu da deskolonizazio-kasuekin edo larrialdi-egoerekin erlazionatuta ez dauden sezesio-prozesuen testuinguruan, betiere erreferendumekin lotuta. Modu horretan, erabakitzeko eskubidea autodeterminazio-eskubidea demokratizatzeko saiakera litzateke, eskubide hori lurralde zehatz eta demokratikoki antolatu batean kokatutako erkidego orori bailegokio.

Bestetik, Igor Calzada Cardiffeko Unibetsitateko ikertzaileak «Datafikazio estrategia emantzipatzaileak» ditu hizpide. Krisi pandemikoak zenbait prozesu ekonomiko, politiko, teknologiko eta sozial paralelo abiarazi ditu, krisi algoritmikoan hezurmamitzen ari direnak, eta, haren ustean, horrek guztiak kalteak dakartza demokrazia-mailan. Demokraziari eusteko, beharrezkoa da «subirautza teknologikoa» eskuratzera bideratutako estrategiak —hau da, «datafikazio estrategia emantzipatzaileak»— formulatzea eta garatzea. Izan ere, Google, Apple, Facebook, Amazon eta Microsoft-ek aspalditik praktikatzen dute «zelatatze-kapitalismoa» delakoa. Egoera hori izanik, erreminta-kaxa bat proposatzen digu Calzadak, estatugintza demokratikorako beharrezkoak diren lanabes hauek barnebiltzen dituen: i) naziogintza algoritmikoa; ii) datu-subirautza; iii) eskubide digitalak eta haiek defendatzeko tresnak (hala nola, Cities' Coalition for Digital Rights), eta iv) datu-kooperatibak.

Hirugarrenik, *estatuaren eskalari* datzekiela, Jone Martínez Palaciosen, Andere Ormazabalak eta Igor Ahedok parte hartzearen instituzionalizazioa aztertzen dute Espainiako estatuan 1978tik 2017ra arte. Parte hartzearen aldaketa neoliberalak hiru mugimendu barne hartzen baldin baditu (demokraziaren krisiaren topos mekanizista baten naturalizazioa, parte hartzearen burokratizazio neoliberalak eta parte hartzearen merkantilizazio pribatiboa), hirugarrenean zentratzen da ikerlana. Ikuspegi estrukturalista genetikutik abiatuta, aztertzen dituzte parte hartzearen mugarri diskurtsibo eta juridikoak eta hura ezartzeko jardunbideak, Espainiako partaidetzaren araubide juridikoa eta Espainiako partaidetzazerbitzuak ematen dituzten agentzia nagusien eskaintzak. Azken horri datzekiela, bi merkatu bereizten dituzte. Batetik, parte hartzearen merkatu neoliberalak edo «nebulosa» legoke. «Administrazioari coaching egiten dioten sofistek» osatuko lukete merkatu hori. Diskurtso neoliberal eta merkantilistak ezaugarritzen du merkatu hori, talde enpresarial

ertain-handiz osatuta dagoena. Bestetik, parte hartzearen merkatu soziala ekonomia sozial eta solidarioko sareetan dago saretuta, kooperatibez osatuta dago eta kooperatiba horiek konpromiso militantea izan ohi dute. Planteamendu kritiko eta feministak izaten dituzten kooperatiba horiek, konpromiso militantea izan ohi dutenek, aurre egin behar izaten diete neoliberalismoaren domestikazio-saiakerei.

*Maila abstraktuan baina estatuaren eskalan* ardaztuta, Ainhoa Lasa eta Leire Escajedo Zuzenbide Konstituzionaleko irakasleek oinarri juridiko-konstituzionalen inguruan hausnartzen dute, bidezko ordena sozial eta ekonomikoa xede izanik. Horrela, demokrazia, konstituzioa eta estatua ulertzeko modu ezberdinen genealogia azaltzen dute (formala eta sustantiboa, liberala eta soziala, monoklasea eta pluriklasea), argudiatuz Bigarren Mundu Gerraren osteko konstituzioek ez zutela benetako konstituzionalismo soziala islatzen, ongizate-estatu baizik, non arlo politiko eta sozialean joera pluriklasea onartzen zen, baina ekonomiaren zuzendaritzan estatuak izaera monoklasea mantentzen zuen. Gaur egun, «merkatu-estatu»aren forma hartzen dute gure estatuak Europar Batasunaren baitan, honako hauek izanik haien printzipioak: i) estatuaren gutxieneko esku-hartzea; ii) merkatu globalaren aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzea; iii) nazioartean boterea bilatzea eskualde-blokeetan txertatuz, eta iv) beste estatuarekin lehian aritzea. Estatu-forma hori, esan gabe doa, erabat bateraezina da estatu sozialarekin.

Saul Curto Lópezek eta Luis Miguel Uharte Pozasek, euren aldetik, «Herri-boterea, eraldaketa demokratikorako subjektu gisa. Demokrazia komunala eraikitzeke subjektua, proiektua eta prozesua» izenburu duen kapituluak idatzi dute. Demokrazia liberalaren krisiaren eta indibidualizazioaren aurrean, demokrazia komunalak komunitatean eta egiazko herri-boterean —hots, mendeko klaseen boterean— ardaztutako eredia litzateke. Lehenik, prozesuari dagokionez, botere dualaren alde egiten dute: «kontua ez da Estatuaren kontra ala Estatuarekin; aitzitik, herri-boterearen eraikuntzan, beharrezkoa eta osagarria dira Estatuaren aurkako borroka, Estatuaz haratagoko borroka eta Estatuarekin(-tik) egin beharreko lana» (188. orrian). Bigarrenik, herri-botereak aginte horizontala, demokratizatua eta heterarkikoa dakar berekin, zutabe izanik zuzeneko demokrazia, egiturazko parte hartze politikoa eta jabetza komunala. Hirugarrenik, subjektu indibidualizatuaren ordean, subjektu kolektibo eta pluralaren eraketa planteatzen du herri-botereak, identitate zapaldu ezberdinak batuz aniztasunaren aintzatespenaren eta artikulazioaren bitartez.

Laugarrenik, *Europar Batasunaren eskalan*, Javier Uncetabarrenechea eta Igor Filibiren kapituluak «Krisia eta berrikuntza demokratikoa integrazio-prozesuan: subiranotasun europar baterantz» du izenburu. Egileek kezka hau hartzen dute abiapuntutzat: «eskala europarra garatu behar da eraginkorra izan dadin, baina [...] eraginkortasuna bilatzeak ez du esan nahi demokraziari buruzko eztabaida alde batera uztea» (138. orrian). Demokrazia eta krisialdiek eskatzen duten eraginkortasuna uztartzeko, gakoa litzateke subiranotasunaren ikuspegi monistatik ikuspegi pluralistara igarotzea. Bestela esanda, estatuen subiranotasun eskusiboaren eredia erabat zaharkituta dago, eta konponbidea ez datza eredu hori europar eskalara eramatean, baizik eta subiranotasun klasikoa gainditzean, subira-

notasun pluralistaranzko norabidean, non subiranotasuna EBren, estatuen edota beste-lako eskala politikoen artean banatuta legokeen.

Bosgarrenik, *eskala globala edo nazioartekoa* dugu. Vigoko Unibertsitateko irakaslea den Argimiro Rojok eredu demokratiko kosmopolita bat aurkitzeko erronkari heltzen dio. Estatu-nazioen gaineratik dauden zenbait erronkak gobernantza-eredu globala eskatzen dute, eraginkorra izateaz gain demokratikoa ere izan behar dena —ildo horretan, demokrazia ordezkatzailea deliberazio-demokrazia parte hartzaileaz osatzearen alde agertzen da egilea. Hobekuntzak hobekuntza, egungo gobernantza globalaren gabeziak azpimarratzen ditu Rojok: erakunde politiko inklusibo eta irekirik ez egotea; kontu emateko mekanismo argirik ez egotea; erakundeen gainjartzea; justizia-auzitegi globalen mugak; nazioarteko legediaren aplikazioa bermatuko lukeen agintaritzarik ez egotea; estatuen ordezkaritzamaila ezberdina, etab. Horren aurrean, «*federative global democracy*» delakoa litzateke konponbidea (Cavallero 2009). Eredu berri horren eraikuntzarako, kontuan hartzeko modukoak diren zenbait esperientzia daude: hasi berria den gizarte zibil globala, Munduko Mugimendu Federalistaren proposamenak, eta Europar Batasunaren erreferentzia.

Gizarte zibil globalaren harira hain zuzen, Herrien Nazioarteko Biltzarrari —HNBri— dedikatzen diote euren kapitulua Leire Azkarragak eta Unai Vázquezek. Eragile gehienek euren ekintza estatu-nazioaren mugetara mugatu ohi badute ere, orain dela hogeita hamar urte inguru Herri-Mugimendu Transnazionalak egituratzen hasi ziren, batez ere globalizazioa neoliberalaren aurkakoak. Mundu-sistemaren, demokrazia burgesaren eta sakontze demokratikoaren gainean zenbait hausnarketa plazaratu ostean, ondorioztatzen dute «inoiz baino beharrezkoagoa da [dela] herri-mugimenduek nazioarteko ikuspegia eta izaera hartzea» (170. orrian), baita statu quoaren aurkako posizionamendu argia izatea ere. HNB kontinente ezberdinetako herri eta gizarte-mugimendu, alderdi politiko eta sindikatu ezkertiarrek artikulatzen dituen proposamena izanik, egileok haren ibilbidea dute hizpide: sorrera, lehen topaketak, egitura, parte hartzaileak, definizio eta praktika politikoak, etab.

Seigarrenik, IV. ataleko hiru kapitulu, *epistemologia eta metodologiarekin erlazionatuta* daudenak, ez datoz bat eskala konkreturen batekin. Esaterako, Tomás R. Villasante Madrigo Unibertsitate Complutenseko ohorezko irakasleak «transdukzioko estrategietarako metodologiak» jorratzen ditu. Kapitulu horretan, azken 50 urteetan gizarte-zientzietan egondako zenbait eztabaida berrikusten ditu: lehian egondako korrante marxistak, sozio-analisia, analisi instituzionala, konstrukzionismoa, ekarpen feministak, ikerketa-ekintza, jakintzen ekologia eta, batez ere, soziopraxia.

Gizarte-langintzaren esparruan, Maddalen Epelde Juaristik, Ainhoa Berasaluzek, Miren Ariño Altunak eta Charo Ovejas Larak jardun profesionala hobetzeko eta ezagutza sortzeko tresna bat aztertzen dute: alegia, «gainbegiratzea». Konstrukzionismo sozialetik, pentsamendu konplexutik eta errealtatea problematizatzen duen ikuspegi kritiko-gogoe-tatsutik abiatuta, zentratzen dira gainbegiratzean eta ikerketa-ekintza parte hartzailean,

teoria-praktika eta ikertzaile-ikertua binomioak gainditzen dituzten horietan. Horren ostean, gainbegiratzea erabiliz eurek garatutako ikerketa baten adibidea aurkezten digute. Tokiko<sup>4</sup> gizarte-zerbitzuen lehen mailako arretako jardun profesionalaz hausnartzeko parada eman diete akademiko eta langileei, taldeka antolatuta. Emaitei dagokienez, lau zailtasun nagusi identifikatu dituzte (gehiegizko araugintza eta burokratizazioa, gizarte-langintza eta gizarte-zerbitzuak berdintzat jotzea, gizarte-langintza diziplinaren ahultasunak, eta gehiegizko inplikazioa lanbide-jardunean), baita horiei aurre egiteko estrategiak ere (profesionalen autozaintzarako espazioak ahalbidetzea, gizarte-langintza diziplina gisa indartzea, eta gizarte-auzia ikusgarri egin eta arreta eskaintzea).

Idoia Del Hoyo Morenok, Miriam Ureta García eta Uxue Zugaza Goienetxeak interseksionalitatea jorratzen dute ikerketa-tresna gisa. Zapalkuntza aztertzeako marko monistetik harago, egileok interseksionalitatearen sentsibilitate analitikoaren nondik norakoak<sup>5</sup> azaldu eta sakontze demokratikoarekin lotzen dute. Teoria azaldu ez ezik, haren aplikazioaren adibideak ere ematen dituzte, Zumarragako emakumeen zapalkuntzak eta erresistentziak azaleratzeko eta estigma birpentsatzeko eta aztertzeako, hain zuzen.

Azkenik, V. atalak Iñaki Zaldua Callejaren glosategia jasotzen du. Bertan, Zalduak 134 funtsezko kontzeptu definitzen ditu: hala nola, agentzia, Aulki Hutsaren krisia, epistemologia, herritartasuna, legimititatea, prefiguratioa... Kontuan hartuta liburu hau eskuliburua dela eta ziurrenik irakurle guztiok galtzen garela momenturen batean, erabat egokia eta lagungarria suertatzen da glosategia eskaintzea amaieran. Gainera, bereziki eskertzekoa da ahalegin hori aintzat hartzen badugu, Zalduak berak iruzkintzen duen bezalaxe, kapitulu bakoitzak bere terminologia propioa erabiltzen duela, diziplina bakoitzak berezko teoria eta kontzeptuak dituelako. Hain zuzen ere «korapilo» teoriko-kontzeptual horiek asartzeko tresna-kutxa eskaintzen digu egileak.

Gabeziaren bat aipatzearren, nabarmena da Ipar Euskal Herriko errealtateari buruzko ikerlan falta. Halaber, faltan botatzen da liburuari amaiera borobilagoa emango ziokeen kapitulu edo epilogo bat ere (glosategiaz gain), kapitulu ezberdinak bata bestearekin elkarriketan jarriko zituzkeena, hasierako kapitulu editorialak egiten duen bezalaxe. Esate baterako, honako galdera hauek okurritzen zaizkit: bateragarriak al dira demokrazia global federala eta demokrazia komunala? Estatuaren eskalan bezala, Europako eskalan ere uztartu behar al ditugu EBren aurkako borroka, EBz haragoko borroka eta EBrekin/EBtik egin beharreko lana? Zentzuzkoa izaten jarraituko luke «etorkin»ez eta haien «integrazio»az hitz egitea eredu demokratiko kosmopolita batean? Txertatuta al daude erabakitzeko eskubidea eta datu-subirautza HNBren planteamenduetan? Beharbada, irakurlearena ere bada kapituluaren arteko elkarriketa horiek egitearen ardura, bakoitzak bere erantzunak bila ditzan.

<sup>4</sup> Tokiko gizarte-zerbitzuak aipatzen dituzte, baina ez dute zehazten nongoak diren edo non egiten duten lan hausnarketetan parte hartu duten akademiko eta langileek.

<sup>5</sup> Interseksionalitateari buruz sakontzeko, ikusi, adibidez: Crenshaw 1989; Collins 2019.

Nolanahi ere, ez dago dudarik demokraziaren, subiranotasunaren eta herritartasunaren inguruko hausnarketak oso beharrezkoak direla XXI. mendeko joerak ikusita. Liburuak barnebiltzen dituen ikerlanak diziplina ezberdinetan kokatuta egotea, «korapilatsua» izanda ere, oso aberasgarria da, aukera ematen digulako gainontzeko diziplinetatik ikasteko. Era berean, denak sakontze demokratikoarekin konprometituta egon arren, nabarmena da autoreek kezka ezberdinak dituztela statu quoaren inguruan, eta ezberdintasun horiek dira, hain zuzen, gogoeta eta ikerlanak eskala ezberdinetan ardaztuta egotearen zergatia. Eskuliburuaren ekarpen eta berezitasunik handiena, baina, honako hau da: unibertsitateko ikasle euskaldunei tokiko begirada, ezagutza eta esperientziak helaraztea.

## BIBLIOGRAFIA

- Applebaum, Anne. 2020. *Twilight of democracy: The seductive lure of Authoritarianism*. New York: Doubleday.
- Cavallero, Eric. 2009. «Federative Global Democracy». *Metaphilosophy* 40 (1): 42-64. <https://doi.org/10.1111/j.1467-9973.2009.01562.x>
- Collins, Patricia Hill. 2019. *Intersectionality as Critical Theory*. Durham: Duke University Press.
- Crenshaw, Kimberlé. 1989. «Demarginalizing the intersection of race and sex: A black feminist critique of antidiscrimination doctrine, feminist theory and antiracist politics». *The University of Chicago Legal Forum* 140: 139-167. <https://chicagounbound.uchicago.edu/cgi/viewcontent.cgi?article=1052&context=uclf>
- Goikoetxea, Jule. 2017. *Demokraziaren pribatizazioa. Kapitalismo globala. Europa eta euskal lurraldeak*. Donostia: Elkar.

euskal  
soziologia eta  
zientzia  
politikoaren  
**elkartea**



**asociación**  
vasca  
de sociología  
y ciencia política